

TIM, KALE-TXAKURRAREN ISTORIOA

Irati Goikoetxea

Beasain, 11 urte

Abenduaren 17a:

Ni, Irati izeneko neskatila alai bat naiz. Ilea, garia bezain horia dut, goma gorri-gorri batez bildua daramadalarik. Begiak, itsasoko ura baino urdina-goak eta ahoan, belarritik belarrira zabaltzen den irribarre gozo bat dut.

Goizero bezala, gaur ere, eguzkiaren lehen izpiekin jaiki naiz, zortziak aldera. Ordurako, gosaria prestaturik zegoen mahai gainean, hain gustokoa dudan marmelada eta mantekila ogian igurtzirik. Bizkor gosaldu, txandal berria jantzi eta amari musu emateko betarik gabe, zortzi eta erdietarako kalean naiz. Enararen portal parean nagoela, istiluak, oihuak eta garrasiak somatu ditut.

Inguratu egin naiz eta hamahiru bat urte dituzten bi gazte, kale-txakur gizajo bati sekulako jipoia ematen ari direla ikusi dut. Une honetan, zerbait esateko gogo eta torri zait, baina isildu egin naiz ni egurtuko nauten beldurrez. Ikastolako txirrinarekin batera, jendea mugitzen hasi da eta txakurra han gelditu da kaleko isiltasun bakartian, dardarka eta begietatik negarra dariola. Nire txamarra berdea txakurraren gainean jarritz, neuk ere ikastolako bidea hartu dut.

Pentsakor, betilun, goibel, nire onetik kanpo, batzuetan aurrera eta besteetan atzera eginez.

Kostata, baina halako batean eserlekuan nago. Bi minutu pasatu dira eta Marian andereñoa sartu da gelara. Matematika dugu eta andereñoa azaltzen hasi da. Nik bere ahotsa entzuten dut, baina ez dut ezer ulertzen, txakurraren egoeran pentsatzen bainago. Halako batean, galtzak bustitzen hasi zaizkit eta ttanttoka-ttanttoka nire aulki azpian putzu bat osatu da. Nire adiskide guztiak ohartu eta barrezka hasi dira. Pixa egin dut ! Andereñoa ere konturatu da eta galdezka hasi zait:

—Zer duzu Irati? Zer gertatzen zaizu?

Nik, lotsa-lotsa eginda, tomate heldu baten moduan, negar zotinka eta hitz totelka honela erantzun diot:

—Hor, kale bazter batean, erdi hilean, txakur bat dago eta al baitariarengana eraman nahiko nuke.

Hura ikusita, andereñoak, nire aurpegia leun-leun eta maitekiro hartuz, hitz hauek esan ditu:

—Bai bihotz onekoa zarela! Edonor oso harro senti daiteke zure jarrerarekin eta zure lagunena bat prestatzen bada, txakurra al baitariarengana eraman dezakezue.

Erantzuna ezin hobea da, denak prestatzen dira laguntzeko, baina andereñoak bi lagun aukeratzen ditu, Enara eta Mikel.

Korrika batean eta eskailerak hirunaka jaitsiz, berehala gaude txakurrarekin. Eskuetan hartu eta abiatzera gindoazela, Kepa udaltzaina azaldu da autoarekin. Kepa, nire aitaren laguna da. Bera ikustean, lasaitu egin naiz eta erabat harrিতuta, hau esaten hasi da:

—Kaixo Irati, ordu hauetan ez al zinateke ikasto-

lan egon behar? Dagoeneko piper egiten hasi al zarete? Zer gertatzen da?

Nik, gertatua kontatu diot eta berehala prestatu da laguntzera. Hirurok eta txakurra autoan sartu eta albaitariarengana abiatu gara. Bost minutu barru hemen gaude, parez pare gizon bizardun bat daukagula.

Albaitaria, berehala konturatu da txakurraren egoera larria dela. Lehen azterketa bat egin eta honela mintzatu da:

—Hiru egunetan txakurra hemen utzi beharko duzu, nahiko gaizki ikusten baitut.

Nire buruarekin baieztatuz eta agurtu ondoren, etxeratzen gara. Epe hau hain luzea ez izan arren, niri oso luzea egin zait. Telefonoak jotzen duen bakoitzean, bihotza saltoka dut.

Azkenik, pasatu dira hiru egunak eta oso urduri nago telefonoak noiz joko. Orain, postre goxoa jaten ari naiz, baina nik ez diot goxotasunik hartzen, beste zerbaitetan pentsatzen bainago. Bapatean, «RINNNNG», telefonoak jo du:

—Bai, nor da? —galdegin dut jakinminez.

—Albaitaria naiz, eta nahi duzunean etor zaitezke txakurra jasotzera, guztiz sendatua dago.

—Ongi da, oraintxe bertan joango naiz.

Bi minutu ere ez ditut behar izan. Txakurra, ikusi orduko, gainera etorri eta miazka hasi zait. Faktura, lagunek utzitako eta nire itsulapikotik ateratako diruaz ordaindu dut. Etxe bidean, hau da buruan darabildan galdera. «Ba ote du izenik?». Ziur aski, jaio orduko umezurtz utziko zuten kale bazterrean. Izena jarri beharko zaio, baina hau

denoi dagokigunez, korrika batean lagunengana joan naiz eta denen artean Tim izena jarri diogu. Ondoren, Tim hartu eta etxera joan naiz. Amak begi aurrean ikusi orduko, hau esan dit:

—Irati, datozen lau egunetan utziko dizut etxean edukitzen, baina gerorako beste lekuren bat bilatu beharko diozu.

Gau guztia, tximista eta trumoi artean igaro da, pertsianak dardarka ibili dira eta hainbeste danbatekorekin ezin izan dut lorik egin. Jaikitzean, zerua ikatza bezain ilun ikusi dut eta euria gogotik ari du. Gaur larunbata da eta futboleko partidua dut. Aitzaki honekin atera naiz etxetik Timekin. Orain, partidua jolasten ari naiz. Gustora nago, irabazten baikoaz, baina erabat nekaturik. Iritsi da atsedendia eta alde guztietara begiratu arren, ez dut Tim ikusi. Nire lagun batekin egongo delakoan, partidua jarraitu dut. Pozik nabil, baina partidu guztiak bezala, hau ere bukatu egin behar. Oihuka hasi naiz Tim aurkitu nahian, baina arrastorik ere ez. Orduan, arnasestuka eta korrika Leire inguratu zait.

—Leire, zer gertatu da? —galdetu diot kezkatu, bere aurpegian zerbait larria nabaritzen.

—Ba, ba...

Kostatu zaio esatea, baina azkenean bota du:

—Hil egin da, Tim hil egin da —esan dit negar zotinka.

Momentu honetan, oihuka, zoratu beharrean jarri naiz:

—Nola hil da? —galdetu diot sinestu ezinik.

—Haur bat ibaira erori da eta atzetik, bi aldiz

pentsatu gabe, Tim lagunak uretara salto egin du, hura atera nahian. Bere ahaleginetan, azkenean, umea heltzen du eta ibai ertzean uztea lortzen du; bera, irteten saiatu da, baina indarrak ahulak nunit bait eta irrist eginez, berriro, ibaiaren ur handi eta bizietan erori da, bere azken arnasa bertan utziz.

Jendetza handia bildu da Timen inguruan eta horien artean ikusi ditut Tim jipoitzen ihardun ziren bi gazteak ere; oraingoan, triste eta goibel daude. Ni, bultzaka eta zalapartaka, azkenik iritsi naiz txakurraren ondora. Besoetan hartu eta musuka hasi natzaio, azken agurra eman nahian. Hurrengo egunetan ez zen beste berririk, txakurraren jarrera zintzoa eta jatorra baizik.

Harrizko estatua bat ere egin diote. Niri gertatzen hau gainditzea asko kostatu zait, baina bada zer bait lagundu didana, herrian beste kale-txakurrik ez ikustea.